

**HERRIKO EUSKARA VS. LITERATUR**  
**GIPUZKERA DONOSTIAKO**  
**ESKOLAREN ANTZERKIAN**

Egilea: Oier Morrás Aranoa

Tutorea: Blanca Urgell Lázaro

Euskal Ikasketetako Gradua (UPV-EHU)

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2018/2019 ikasturtea

## Laburpena

Lan honen helburu nagusia Donostiako eskolako bi autoreren antzerki lanetan agertzen diren hizkera mota biak —akotazioena eta elkarrizketena— deskribatzea eta konparatzea da. Marcelino Soroaren *Alcate Berriya* eta Avelino Barriolaren *Meza Berriya* obrak aukeratu ditugu, lehena 1885ekoa eta bigarrena 1908koa; beraz, Lehen eta Bigarren Euskara Modernoen artean dauden testuak ditugu. Mitxelenaren (1984 *apud* Urgell, 2018: 635) arabera, eskolako idazleek hitz larramenditar berri ugari erabiltzen zituzten akotazio edo eszena-argigarriak idazterakoan; elkarrizketak, berriz, Urgellen (2018: 635) arabera, hizkera herrikoi batean daude idatzita, ia hitz berririk gabekoa.

Lehenik eta behin, sarrera gisa, zenbait testutan antzematen den ahozkotasanari buruz hitz egiten dugu. Izan ere, zenbait testu generotan ahozkotasanaren zantzuak nabarmenak dira, hainbat faktorerengatik, azaltzen dugun bezala; eta antzerkia da, alegia, ahozko hizkuntzatik hurbilen dagoen generoetako bat. Guzti horri buruz hainbat hizkuntzalari esanguratsuk esan dutena azaldu eta aztertzen dugu.

Jarraian, Soroaren eta Barriolaren testuak linguistikoki deskribatzen ditugu, hizkera baten eta bestearen ezaugarriak zerrendatuz, ikusteko zeintzuk diren bien arteko antzekotasun nahiz desberdintasunak. Hots, azterketa linguistikoaren bidez akotazioen eta elkarrizketen hizkeren arteko muga zurruna ala lausoa den zehazten saiatzen gara.

Ildo beretik, literatur gipuzkeraren eredu den Gregorio Arrueren *Santa Genovevaren bizitza* (1868) obrarekin erkatzen ditugu bi antzezlanetako akotazioak, ikusteko ea zenbat ezaugarri partekatzen dituzten eta ea maila berean dauden ala ez.

Bukatzeko, azken atalean hainbat ondorio interesgarri ateratzen ditugu: alde batetik Donostiako eskolako antzerkietako akotazioen eta elkarrizketen artean hizkuntza mailan dagoen aldeari buruz eta, bestetik, hizkera bakoitzaren ahozkotasan eta literariotasunari buruz, horretarako Arrueren testua eredu hartuta.

## **Aurkibidea**

<b>0. Sarrera.....</b>	<b>5</b>
<b>1. Helburuak eta metodologia.....</b>	<b>7</b>
<b>2. Testuingurua.....</b>	<b>9</b>
2.1. Donostiako eskola.....	9
2.2. Larramendi eta literatur gipuzkera.....	11
<b>3. Hizkuntza azterketa.....</b>	<b>14</b>
3.1. Grafia.....	14
3.2. Fonetika.....	16
3.3. Izen morfologia.....	18
3.4. Aditz morfologia.....	19
3.5. Sintaxia.....	21
3.6. Lexikoa.....	23
<b>4. Arrueren lanarekin aldeak.....</b>	<b>26</b>
<b>5. Ondorioak.....</b>	<b>28</b>
<b>6. Bibliografia.....</b>	<b>31</b>

## 0. Sarrera

Hizkuntza baten historia aztertzerakoan, tradizionalki hizkuntza literarioaren eta ahozko hizkuntzaren artean bereizketa argi bat egin izan da. Munduan badira gaur egun ere tradizio literarioak gabeko hizkuntzak, transmisiorako baliabide bakarra ahozkotasuna duten gizarteak. Beste muturrean badira, aitzitik, hizkuntza erabat garatuak, tradizio literario luze eta sendokoak, edozein motako testu konplexuak (zientifikoak, filosofikoak...) sortu izan dituztenak. Eta, erdibidean, literatur tradizioa izanik ere, eskas xamarra duten hizkuntzak genituzke, haien artean euskara. Lehenbiziko euskal testuek Erdi Arora eramaten gaituzten arren, tradizio literarioaren testu urritasunagatik eta aniztasun ezagatik (gehienbat erlijiozko testuak baitira) ezin koka dezakegu euskara arlo horretan inguruko beste hizkuntza batzuen parean. Hala ere, Padillak (2016: 46) dioen bezala, euskal corpusaren eskasia horrek izan dezake abantailarik, euskararen historialarien artean iritsi zaizkigun lekukotasun guztiak kontuan hartzeko beharra hedatu baitu, inguruko erdara gehienetan egoera oso desberdina den bitartean. Hori dela eta, euskal hizkuntzalariek garrantzi bera eman izan diete testu literario zainduei nahiz estandar literarioetatik aldentzen diren bestelako lekukotasunei, hizkuntza “garatuagoetan” luzaro literatura kanonikoa lehenetsi den bitartean.

Zer gertatzen da, baina, hizkera biak, literarioa eta ahozkoa, nahasten dituzten testuekin? Literatur hizkuntzaren eta ahozko hizkuntzaren arteko oposaketa tradizional hori ez da beti finkoa, baditu ñabardurak. Izan ere, ohikoa da zenbait testu idatzitan ahozkotasunaren aztarnak agertzea maila desberdinetan. Wulf Osterreicherek (2004) *continuum* kontzeptual bat ezarri zuen berak izendaturiko hurbileko hizkuntzaren (ahozkoa, informala, ez-planifikatua) eta distantzia komunikatibo handiko hizkuntzaren (jasoa, formala, planifikatua) arteko graduazioak adierazteko. Bi ardatz proposatzen ditu: bitartea (ahotsa/hitz idatzia) eta testuaren sortzapen linguistikoa (hurbiltasuna/distantzia komunikatiboa). Continuum horren bi muturretan, adibidez, solasaldi intimo bat eta lege

kontratu bat koka genitzake. Halaber, denbora, espazioa, gauzatze pribatu edo publikoa bezalako faktoreek ere moldatzen dute testuaren sortzapen linguistikoa.

Normalean, testua zenbat eta literatura kanonikotik gertuago egon orduan eta hizkuntza formalagoa izango du eta, ondorioz, ahozkotasanaren zantzu txikiagoak; baina, kultur maila apalagoko idazle batek ekoiztako testuak, batez ere testu pribatua bada, aukera handiagoak ditu hizkuntza informalaren ezaugarriak izateko. Hala ere, zaila izan ohi da testu batean ahozkotasanari dagokion zatia eta idatzizkoari dagokiona zehazki bereiztea, Rafael Canok (1998) dioen bezala: “Ahozkotasuna ukaezina da, atzeman daiteke, eta batzuetan frogatu ere daiteke; baina diskurtso oro mistoa da, inpuroa, eta ahozkotasanak idatzizkoari eragin diezaiokeen bezala, idatzizko ezaugarriek ahozkotasanarengan eragina izan dezakete” (Cano, 1998: 239-240; nire itzulpena). Dena den, azterketak dakartzan oztopoak kontuan hartuta ere, lekukotasun zeharo baliotsuak ditugu testu mota horiek, eta hizkuntza baten historia zehazki ezagutzeko nahitaez erabili behar ditu hizkuntzalaritza historikoak. Tradizionalki filologiatik baztertuak izan dira, soilik bestelako helburuekin erabiliak (besteak beste, historialariek eta filosofoek erabiliak), baina azken urteotan merezi duten garrantzia ematen hasi dira zenbait hizkuntzalari. Osterreicherr-ek (2011) hauxe azpimarratzen du hizkuntzalaritza diakronikoan azken urteotan egin diren berrikuntza metodologikoei buruz hitz egitean:

Gaur egungo ikerketen helburuak ez dira soilik testu literario landu eta handinahiak, testu historiografikoak, filosofikoak, teologikoak edo juridikoak aztertzea, baita ere eguneroko beharrei erantzuteko testuinguru pribatu, erlijioso, administratibo edo tekniko-praktikoetan ekoiztako testuak. (...) adibidez, gutun pribatuak, kantzak, ordenantzak, testamentuak... (Osterreicher, 2011: 308-309)

Testu literario zainduak normalean garaiko arauak jarraitzen dituzte eta, hortaz, horien hizkera ezin da herritarrek erabiltzen zutenaren islatzat hartu. Estandarretik aldentzen diren testu informalagoek, aldiz, maiz dituzte ahozko hizkuntzaren zantzu

garbiak eta, ondorioz, hiztunen benetako hizkerara hurbiltzen gaituzte, betiere testu idatzi batek dituen mugekin. Ahozko idatzia, besteak beste, hurrengo eremu komunikatiboetan topa dezakegu errazen: gutun pribatuetan, egunkarietan, antzerki lanetan, epaiketen transkripzioetan, kultura eskaseko pertsonen idatzitako testuetan... Guk, kasu honetan, antzerki obra bi aztertuko ditugu, idatzizko eta ahozko hizkeren arteko kontrastea agerian uzteko asmoz.

Antzerki obra batean, ohikoa da pertsonaiek darabilten hizkera ahozkoa izatea, ahoskatzeko helburuarekin baitago idatzita, aktoreek ahoskatzean natural sentitzeko helburuarekin. Hori ez da gertatzen, adibidez, eleberri edo saiakeretan, non elkarrizketak pertsonaien barne edo kanpo gogoetak bezala sentitzen diren, gehienetan naturaltasunez esaten ezinezkoak. Antzerkian, pertsonaiaren hitzak entonazioa, timbrea, ahotsa balute bezala sentitzen dira irakurtzean. Ezaugarri horiek antzerkigintza eremurik aproposenatarikoa egiten dute testuen ahozko aztertzeko (Nuñez, 1991: 58).

## **1. Helburuak eta metodologia**

Mitxelenaren esan batean oinarrituta, Urgellek (2018: 635) ondorioztatu du Donostiako eskolako autoreen antzerkietan elkarrizketak hizkera herrikoi eta informal batez daudela idatzita, eta oharrak berriz, hizkera larramenditar jasoago batean. Hots, bata hurbiltasun komunikatiboari legokioke eta, bestea berriz, distantzia komunikatiboari. Gure lanaren helburu nagusia, beraz, hautatu ditugun lanetako akotazio zein elkarrizketetako hizkerak aztertuz baieztape hori noraino den egia frogatzea izango da. Horretarako, eskolako idazleak diren Marcelino Soroaren *Alkate berriya* (1885) obratik eta Avelino Barriolaren *Meza berriya* (1908) lanetik ateratako laginak baliatuko ditugu, eranskinetan atxikiak. Laginok antzerki lan bakoitzaren lehenbiziko bederatzi orrialdeez daude osatuta, portadatik hasita.

Bi obretan, eta antzerki-lanetan ohikoa denez, elkarrizketak eszena-argigarriak baino askoz ere ugariagoak eta zabalagoak dira, horregatik erabili behar izan ditugu bederatzi orrialde, akotazioen kopurua nahikoa izan dadin.

Lehenik eta behin, hautatutako pasarteetan, batetik, elkarrizketak eta, bestetik, oharrak edo eszena-argigarriak bereizi ditugu. Jarraian, bi hizkuntza mailak deskribatzera igaro gara, azterketa filologikoaren bitartez bakoitzaren ezaugarriak azpimarratuz. Alabaina, ez dugu testuetako euskara nongoa den sakonki aztertuko, gure helburua ez baita lan dialektologiko bat egitea eta gure lanaren mugak gaindituko lituzkeelako; horrek ez du esan nahi, ordea, lanak ez duela zertzelada dialektologikorik izango dagokion kasuetan —adibidez, fonetikan eta lexikoan—.

Gure laginak mugatuak direnez, antzerki lan osoan agertzen diren hainbat ezaugarri linguistiko ez ditugu aipatuko; hots, aukeraturiko testu zatietan agertzen diren ezaugarriak aipagarrienak aipatzera mugatuko gara. Horrekin batera, ikusiko dugu akotazioak distantzia komunikatibotik gertuago dauden ala ez eta elkarrizketak, berriz, hurbiltasun komunikatibotik, hots, ahozkoasunetik hurbilago.

Halaber, Donostiako eskolako kide ez den baina literatur gipuzkeraren XIX. mendearen bigarren erdialdeko ordezkari ezagun eta oparoenetarikoa den Gregorio Arrue (1811-1890) hernaniar eskola-maisuaren *Santa Genovevaren vicitza* (1868) lana ere erkatuko dugu aipatutako bi autoreenekin, eszena-argigarriak gipuzkerazko hizkera literariotik hurbil dauden ala ez frogatzeko asmoz. Kasu honetan, Arrueren obra osoa baliatu dugu, hots, ez dugu lagin mugatu bat erabili.

Laginak ez ditugu jatorrizko testuetatik atera, baizik eta *euskal klasikoen gordailua* webgunean aurkitzen diren autore anonimo batek egindako transkribaketetatik, bi antzerki lanen kasuan. Dena den, jatorrizko grafia errespetatu egin du transkribatzaileak.



Gregorio Arrueren testuari dagokionez, *euskadi.eus* webgunean eskegita dagoen edizio originala baliatu dugu.

## 2. Testuingurua

### 2.1. Donostiako eskola

Donostiako eskola edo Euskal Iztundea 1914an Donostian sortu eta 1936 arte iraun zuen antzerki eskola bat izan zen. Euskal antzerkigintzari indar berria emateko helburuarekin jaio zen, testuinguru zehatz batean: 1876an, III. Karlistaldiaren ondoren, egungo EAEko foruak abolituak izan ziren eta, egoera horri, errenazimendu kultural eta politiko batek jarraitu zion, besteak beste, antzerkigintzaren berrindartzea ahalbidetu zuena (Zuloaga, d.g.). Hala ere, antzerkiaren pizkundea soilik Donostiara mugatu zen hasieran eta San Sebastian eguna, inauteriak eta Santo Tomas eguna ziren euskarazko antzerkia ikusteko egun seinalatuak. Beranduago, 1896tik 1913ko tartean, Gipuzkoa osoko herrietan egiten ziren Euskal Jaietara ere hedatu zen, dozenaka obra antzeztuz hiri eta herri ezberdinetan, baina gehienbat Donostian arrakasta izandako obrak errepikatzen ziren, inolako berrikuntzarik gabe. Toribio Alzaga (1861-1941) antzerkigile donostiarra izan zen eskolako zuzendari lehenbizikoa eta esanguratsuena. Euskal antzerki nazional eta burges bat sortzeko saiakerak egin zituen, ohiko abertzaletasun eta tradizionaltasunetik aldentuta kalitatezko antzerkia egin zitekeela erakutsi nahi izan baitzuen (Urkizu, 2009: 129).

Marcelino Soroa (Donostia, 1848-1902) euskal antzerkiaren aitatzat hartua izan da (Urkizu, 2009: 111). Zehazki Donostiako eskolako kide izan ez arren, hura sortzeko lehenbiziko urratsak eman zituen eta, gainera, eskolako antzerkigile asko bere jarraitzaile edo dizipuluak ditugu; hots, esan daiteke eskolaren jaiotza berari zor diogula hein handi batean. Bere aurretik, euskararen idatzizko tradizioaren barnean antzerkigintza ia erabat antzua dugu. Zuberoako pastorelez gain, euskara hutsean idatzitako obrarik esanguratsuena Pedro Ignazio Barrutia aramaioarrak idatzitako *Gabonetako ikuskizuna*

genuke; hala ere, ez zegoen garaiko antzerkigintza korronteetara moldatua eta ez zuen, dakigularik behintzat, inolako jarraipenik izan.

Soroak lege ikasketak egin zituen Valladoliden eta, bere sorterrira itzultzean, garaiko prentsan maiztasun handiz agertzen hasia zen (Urkizu, 2009: 111), Donostiako beste gazte batzuekin batera zirko batean parte hartzeak ospea ekarri baitzion. Amadeo erregearen aurkako bertso batzuk argitaratu zituen eta, horren ondorioz, Ziburura ihes joan behar izan zuen. Bertan, iheslari talde batekin batera, festak eta antzerki ikustaldiak antolatzen hasi zen, besteak beste. Ikustaldi horietako batean, 1876an, Soroaren *Iriyarena* obra antzeztu zen eta, beranduago, 1878an erbestealditik itzultzean, Donostiako Antzoki Zaharrea errepikatu zen arrakasta handia lortuz (Urkizu, 2009: 111). *Iriyarena* obra elebiduna zen, baina honen arrakastaren ondoren, Soroak euskara hutsezko lanak egitea erabaki zuen, lehenbizikoa *Gabon* (1880) izanik, arrakasta handikoa baita ere. Ikusleen eta autoreen aldetik gorai patze handiak jaso eta gero, buru-belarri ekin zion idazteari: *Au ostatuba!* (1884), *Alkate Berriya* (1885), *Urrutiko intxaurrak* (1887), *Abek istillubak!* (1894)... Bere antzerkiak umorezko obra ximpleak ziren gehienbat, egoera barregarrietan eta hitz-jokoetan oinarritutako umorezkoak, eta herri xehearen entretenimendua zuten helburu nagusi.

Avelino Barriola (Donostia, 1885-Pabe, 1944), Soroaren jarraitzaileetako bat dugu. Donostiako zinegotzi izan zen bi alditan, eta 1914ko agintaldian Euskal Iztundea sortu zuen. 1936ko gerra piztean, atzerriratu egin zen eta Paben hil zen 1944an. Komediarekin hasi zen eta geroago batez ere drama generoa landu zuen. Besteak beste, ondorengo obrak idatzi zituelarik: *Meza berriya* (1908), *Aldiz aldi* (1910), *Zarr gixarajuak* (1912), *Ene aberri laztana* (1932), *Goi argi* (1935)... Urkizuk (2009: 129), honakoa dio Barriolaren antzerkigintzari buruz: bere dramek arrakasta izan zutela euskal burgesia nazionalista aurkezterako orduan —Alzagak ez bezala—, emakumearen papera gailenduz eta hizkuntzaren duintasuna areagotuz, baserri kutsutik ihes eginez; horrela, euskal antzerkigintzan bide berriak ireki zituen, ordura arte ikusi gabeko kalitatea lortuz.

## 2.2. Larramendi eta literatur gipuzkera

Manuel Larramendi (Andoain, 1690 – Loiola 1766) euskal literaturaren historiako autorerik esanguratsuenetakoa dugu eta, ezaguna denez, honen sustatzailerik garrantzitsuenetakoa Hego Euskal Herrian. Mitxelenaren (2001: 90) hitzetan, «Bidasoaren alde honetan, kalitatezko literatura kultu baten hastapenak Larramendiren izaera bikainari lotuta daude». Errespetu handiko gizona, euskararen prestigioa nabarmenki handitu zuen gramatizazioan eta hiztegegintzan egin zituen ekarpenekin eta, horrez gain, hizkuntzaren apologiekin. Bere obrarik azpimarragarrien artean, euskara goraiatzeko helburuarekin idatzitako *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuence en España* (1728), *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada* (1729) euskararen gramatika eta *Diccionario trilingüe: Castellano, Bascuence y Latín* (1745) hiztegi hirukoitza ditugu. Urgellen (2018: 573) ustez, hurrengoak dira Larramendiren ekarpen handienak: «euskara hiztunen begietan balioetsi, oinarrizko hizkuntz lanabesez hornitu eta tradizio eta helburu konpartituak finkatu». Gure lanean gehien aipatuko dugun obra *Hiztegi Hirukoitza* da. Izan ere, hiztegi hirukoitz hau Pirinioetako bi aldeetako autore gehienek erabili izan zuten gutxi gorabehera XX. mendearen hasiera arte, eta Lehen Euskara Modernoko testu gehienek bertatik ateratako hitzak dituzte.

Larramendik kritikak ere jaso zituen, askorentzat ikerketarako erabiltzen zuen metodologia zalantzarria baitzen eta hainbat neologismo eta etimologia asmatu baitzituen. Bere benetako asmoa, Alzibarrek (1992: 336) azaltzen duenez, Hegoaldeko hizkerak berritzea zen, euskara inguruko hizkuntza erromantzeen pareko kutur hizkuntza bilaka zedin, eta horretarako gramatika eta hiztegia bezalako tresnak eskaini zituen. Aurreko dotrinagileak kritikatu zituen, bere ustez ortografia txarreko euskara trakets batean idazten baitzuten. Hitz teknikoetan euskarak duen eskasiaz eta mailegukiko menpekotasunaz ohartuta (Alzibar, 1992: 336), eta egoera hori aldatzeko euskalki

ezberdinetako hitzekin nahiz hitz zaharrekin nahikoa ez zela ikusita, neologismoak asmatzeari ekin zion. Garbizaletasunaren aita ere kontsidera daiteke Larramendi, beraz, baina dena den, ez zituen maileguak guztiz baztertu, eta kasu askotan ez zuen horiek erabiltzea baino beste erremediorik aurkitu.

Dena den, Larramendiren hitz eraketarako metodologiaren barnean ezberdintasunak zeuden. Hitzetako asko jatorri ezezagunekoak, azaltzen zailak edota eratorpenaren erabilera zalantzarri batetik sortuak diren bitartean, hitz-elkarketaren bidez eratu zituen gehienak egokiak eta ulergarriak dira, ziur aski horietako hainbat berak asmatuak diren arren.

Larramendik bere obra ia guztiak gaztelaniaz idatzi zituen arren, ezin zaio ukatu euskal literaturaren alde egin zuen lan handia. Bere gramatikak eta hiztegiak batez ere gipuzkera eta bizkaiera literarioen garapenean izan zuten eragina, XVIII eta XIX. mendeetan. Alegia, literatur gipuzkeraren aitatzat hartua izan da, euskalki honen tradizio literarioa (euskalki guztien artean berantiarrena) berarekin eta, beranduago, bere jarraitzaile ziren Kardaberaz eta Mendibururekin hasi baitzen (Altzibar, 1992: 326). Larramendiren eragina ez zen berdina izan autore guztietan, baina guri dagokigun kasuan, hots, Donostiako eskolako antzerkigileetan, oso nabaria da. Oro har, testuak zenbat eta hizkuntza kultuago batean idatzita egon, orduan eta Larramendiren eragin handiagoa sumatzen da.

Garai hartako Donostiako autoreek Larramendiren hiztegiarekiko zuten menpekotasun handia ulertzeko arrazoi nagusia Iñaki Aldekoak (2008) azaltzen digu:

Donostiar idazleak laikoak eta kultuak ziren. Hala eta guztiz ere, haien literatura emaitzak ez zuen, beharbada, espero izandako maila iritsi (...) Donostiar idazleen artean, nabarmena zen hizkuntza literario moderno bat lantzeko kontzientzia eta borondatea, eta gogo-aldarte horretan eragin handia izan zuen

Larramendiren hiztegiaren gehiegizko erabilerak, hura baitzen, bestalde, errealitate berriei erantzuna emateko beharrezkoa zen hiztegi landuaren gabeziari aurre egiteko tresna bakarra. (Aldekoa, 2008: 143)

Halaber, Altzibarrek (1992) Larramendiren neologismoek Donostia inguruan izan zuten arrakasta, hainbat faktore sozio-ekonomikoen eraginez ekoizitako testuen kultur mailaren jasotzearekin lotzen du:

Pizkundetik aurrera beste aro berri bat hasten da hegoaldean: hirietako klase ertainen hazkundera, eskola eta irakurlegoaren hedapena, inprimategi eta komunikabideak (aldizkari, egunkari e. a.) eta guztionek euskara idatziari dakarkion aldakuntza, bai jenero berrien aldetik (antzerkia, nobelaren hasiera e. a.), bai irakurlegoarenetik (Lore Jokuen eta Donostian *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan bildua). Eta kultur edukien maila jasotzeak ikuskizun handia du Larramendiren hitz berri eta abarren arrakastarekin. (Altzibar, 1992: 331)

Gipuzkera idatzia zen, hortaz, garaiko Hegoaldeko euskalkien artean maila jasoena lortu zuena, eta egoera hori ezin aproposagoa izan zen Larramendiren hitzen erabilerarako, Sarasolak (1986) ongi azaltzen duenez:

Gipuzkoan (...) bazegoen euskaldun ikasi multzo bat hitz horiek (larramenditarrak) hizkuntzaren maila jasoan —euskara idatzian edo hitzaldietakoan, esate baterako— normaltzat jotzen zituena. Multzo berak posibleztatu zuen Lore Jokoen eta Euskal Erria aldizkariaren inguruan gauzatu zen kultur produkzioa. Beste hitz batzuek esateko, XIX. mende bukaerako gipuzkerak bederen bazuen dagoeneko maila landu bat, teori hutsa baino zerbait gehiago zena. (Sarasola, 1986: 212)

### **3. Hizkuntza azterketa**

Donostiako eskolako idazleen euskarari buruz ezer gutxi esan da. Eskolari buruz zerbait aipatzen duten lan murrizak gehienbat testuinguru historikoari buruz hitz egitera edota azterketa literario hertsia egitera mugatzen dira, baina ez dago azterketa filologiko sendorik eta, are gutxiago, testuetan nabarmentzen diren bi alderdien, akotazioen eta elkarrizketen, hizkuntzak erkatzen dituen lanik. Hutsune hori hein batean behintzat betetzea da lan honen helburu nagusia.

Soroaren eta Barriolaren obren hizkerak aldi berean deskribatuko ditugu, komunean dituzten ezaugarriak eta baita ezberdintasunak ere azpimarratuz. Akotazioen eta elkarrizketen arteko bereizketa egingo dugu, baina biek ezaugarriak partekatzen dituzten kasuetan, batera komentatuko ditugu. Argudio filologikoen bitartez, hots, fonetikan, morfologian, joskeran eta lexikoan oinarrituta, ikusiko dugu ea antzerki-lanetako akotazioak hizkera literario larramenditarrari dagozkion eta elkarrizketak, berriz, hizkera herrikoari. Amaitzeko, hasieran aipatu dugun hipotesiari erantzun nahirik, Arrueren lanarekin erkatuko ditugu akotazioak, ikusteko ea zenbat ezaugarri elkarbanatzen dituzten literatur gipuzkerarekin.

#### **3.1. Grafia**

Euskara Zaharraren grafia sistemarekin oraindik erabat hausten ez den arren, gaurko sistemara hurbiltzen gaituzten zenbait aldaketa garrantzitsu antzeman daitezke Soroa eta Barriolaren idazkeretan. Kontuan hartzekoa da Barriolaren obra Soroarena baino ia 30 urte beranduago egina dela eta, espero litekeenez, grafian berritzaileagoa eta oro har egungo euskaratik hurbilagoa agertzen dela. Akotazioetan eta elkarrizketetan grafia bera erabiltzen dutenez —bakoitzak berea—, ez dugu atal honetan bereizketarik egingo batzuen eta besteen artean.

Euskararen gramatizazioak bultzada handia ezagutuko du XIX. mende osoan, gai nagusienetako bat bilakatuz. Euskarari nortasun grafikoa eman nahi zitzaion, erdal grafietatik heredatutako anbiguotasunarekin hautsiz eta, XIX. mende amaieran batik bat, batasun grafikoa lortu zen hein handi batean. Alabaina, oztopoak ere baziren, autore batek grafia berritzaile bat erabili nahi izan arren (adibidez, *k* letra erabiltzea /k/ hotsa adierazteko), moldiztegiaren tipo-kutxetan ez bazen halakorik aldaketa horiek bertan behera geratzen baitziren (Urgell, 2018: 607).

Lexikoaren alorrean bezala, Larramendiren eta bere jarraitzaileen (Kardaberaz, Añibarro...) eragina ere zeharo handia izan zen grafiaren arautzean (Urgell, 2018: 607-608). Autore horiek ekarritako aldaketarik nabarmenenak aipatzearren, <ç> letraren ordez <z> orokortu zuten, lapurterazko testuen <tz> eta <ts> ere bai, <h>-ren erabilera maileguetara eta zenbait hitzetara mugatu zuten, <v> ia guztiz baztertu zuten, <k> erabiltzen hasi ziren <qu> ordezkatzeko...

Gure laginetan agertzen zaizkigun ezaugarri grafiko aipagarrienak, grafia eredu zaharrarekin hautsi eta egungora hurbiltzen gaituzten aldaketak, honako hauek dira: <c> (ondoren *e* edo *i* dagoenean) nahiz <z> (ondoren *a*, *o* edo *u* dagoenean) erabiltzen du Soroak, azken hau gailenduz, eta Barriolak jada soilik <z>; halaber, afrikatuentzako <tz> eta <ts> orokorrak dira, baina <ch>-k jarraitzen du; bestalde, literatur gipuzkeran arrakasta handia izan zuen eta besteak beste Iztuetak, Iturriagak eta Arruek (Urgell 2018: 608) erabiltzen duten <sh> daukate biek: *pishtutzeco* (Sor., 3), *shamurra* (Sor., 3), *esheri-alki* (Bar., 4)... <sh>-ren erabilera, *-ija* > *-iya* aldaketarekin batera (*berriya* Sor., 1 eta Bar., 1, *igortziyaz* Bar., 3, *iruditegiyan* Bar., 3...), XIX. mendearen amaieran hedatu ziren; bizkaieraz gain, Donostiako eskolak beretu zituen, eta Bonaparteren grafia berriari zor zaizkio (Urgell 2018: 613); <h> erabat baztertzen dute biek, bai hitz hasieran eta baita bokal artean ere, larramenditar gehienek bezala; <v> ere guztiz desagertua da <b>-ren mesedetan; eta <ñ>-ri dagokionez, Soroak Larramendik bezala egiten du <ñ> nahiz <iñ> erabiliaraz (*oraiñ*, *bañan*, *egiñ*, *gañera*, Sor. 3...), baina Barriolak <in> darabil hitz

amaieran (*orain, bein*, Bar. 4.or....) eta <ñ> soilik bokal artean (*bañan* Bar. 3.or., *baño* Bar. 5.or., *makiñachobat* Bar. 3.or....).

Eta, azkenik, aipatzekoa da halaber kontsonante albokarietan *ll* dakartela biek, gehienbat bokal artean, baina ez beti: Soroak akotazioetan *afaitatzalleare* (Sor. 4), *umillki* (Sor. 4) *aguacilla* (Sor. 6), *ollar* (Sor. 6) eta *zaltzallia* (Sor. 8) ditu besteak beste, eta elkarrizketetan *mutillac* (Sor. 3) *aguacillari* (Sor. 3), *makill* (Sor. 4), *olluari* (Sor. 5)... Barriolak *dabilen* (Bar. 5), *ibilli* (Bar.), *mutillak* (Bar. 4), *billa* (Bar. 5)... ditu elkarrizketetan, eta akotazioetan bakarrik *pilla* (Bar. 4).

### 3.2. Fonetika

Hasteko, aipatzekoa da literatur gipuzkerak ez duela fonetismorik eta, hortaz, akotazioak hizkera honen lekuko balira, ez luketela ere holakorik agertu behar. Alabaina, bi obrak aztertuta, ikus daiteke bai elkarrizketetan eta baita eszena-argigarrietan ere agertzen zaizkigula fonetismoak. Hizkera herrikoian espero genezakeen zerbait da, baina ez ordea ustez jasoagoak diren testuetan.

Ezaugarri fonetiko nabarmen batzuk aipatzearen, adibidez, Markinako idazleena zen eta Larramendik ere (Azkoitiko sermoian) erabili zuen  $u + a > uba$  epentesidun bukaera (Urgell, 2018: 616) topatzen dugu bai Soroarenean eta baita Barriolarenean ere. Soroaren kasuan bai akotazioetan eta baita elkarrizketetan ere: akotazioetan *lecuban* (Sor. 3), *ojobac* (Sor. 4), *inguruban* (Sor. 4)... Eta elkarrizketetan *escuba* (Sor. 3), *amuba* (Sor. 4), *maisuba* (Sor. 4)... Baina, bigarrenean berriz, adibide pare bat baino ez dugu aurkitu: akotazioetan *antolatuba* (Bar. 3) eta elkarrizketetan *ichuba* (Bar., 6)... Literatur gipuzkeran ez da *-uba-* ematen. Halaber, *ube* orokorra dute biek, akotazioetan nahiz elkarrizketetan, batez ere izenordainetan eta aditz laguntzaileetan: Soroak akotazioetan soilik *batzubec* (Sor. 3), eta elkarrizketetan *escubetan* (Sor. 3), *zubec* (Sor. 3), *duben* (Sor. 5), *banuben* (Sor. 6)... Barriolak, berriz, akotazioetan *dubela* (Bar. 3), *batzubek* (Bar. 3), *agintzenduben* (Bar. 4)... Eta elkarrizketetan *batzubek* (Bar. 3), *duben* (Bar. 4), *nuben*



(Bar. 5)... *I* ondoan *y* epentesia ere agertzen dute biek ia salbuespenik gabe. Kasu honetan, baina, Soroak soilik elkarrizketetan eta portadan ditu adibideak: portadan *berriya* (Sor. 1) eta elkarrizketetan *gustiya* (Sor. 3), *arriya* (Sor. 3), *lizentziya* (Sor. 4)... Barriolak, berriz, portadan, akotazioetan nahiz elkarrizketetan du: portandan *berriya* (Bar. 1), *Donostiyan* (Bar. 1), akotazioetan *Iruditegiyan* (Bar. 3) *ichiya* (Bar. 3), *igortziyaz* (Bar. 3)... Eta, elkarrizketetan, *guztiya* (Bar. 3), *gloriya* (Bar. 3), *lokarriya* (Bar. 4)...

Amaitzeko,  $e + a > ia$  eta  $o + a > ua$  egiten dute biek: portadan *calian* (Sor. 1), *urtian* (Sor. 1) *bakarrian* (Bar. 1)... Akotazioetan *erregidoria* (Sor. 3), *batian* (Sor. 3), *secretariyua* (Sor. 3), *astochuarekin* (Sor. 6), *atzian* (Bar. 3), *gañian* (Bar. 3), *aurrenekua* (Bar. 3), *gelakua* (Bar. 3)... Eta elkarrizketetan *pakian* (Sor. 4), *biardet* (Sor. 4), *gozua* (Sor. 3), *arduac* (Sor. 3), *biarra* (Bar. 3), *alkatiak* (Bar. 4), *abua* (Bar. 3), *Kredua* (Bar. 3)... Eta  $e + e > ie$ -ren adibide solteren bat ere topa daiteke, baina soilik Barriolaren lanean: akotazioetan *ikuslienak* (Bar. 3) eta *urtietan* (Bar. 3) eta, elkarrizketetan *ustietan* (Bar. 6). Joera horiei buruz Urgellek (2018) ondokoa azaltzen du:

Itxuraz berdinak eman arren, joera ezberdinen lekuko dira. Izan ere, idazle jantziek mintzoaren horrelako joerei uko egin ohi zieten, ikusi berri dugunez, salbu eta nori bere hizkeran zuzendu nahi zitzaizkionean: Larramendi azkoitieraz saiatu zen sermoi hartan ( $a + a > ea$  ere eginez, etab.), Gandararen gutunean bizkaieraz saiatu zen bezala. (Urgell, 2018: 616)

Ezin dugu baieztatu Soroak nahiz Barriolak darabiltzaten fonetismoak Donostiako edo Gipuzkoako hizkerakoak direnik, lan dialektologiko luze bati legokiokeelako eta gure azterketaren mugak gaindituko lituzkeelako. Adibidez, *-uba-* eta *-iya-* fonetismoek azterketa zehatzago bat beharko lukete, orduko euskaran ezin bada, gaurkoan bederen, bizirik non dauden ikusteko eta halaber erabakitzeko, ahaleginean behintzat, ea Donostialdeko euskara islatu nahi zuten ala oro har “herrikoiago” iruditzen zitzairen hizkera ideal bat, Markinakoen bidetik joaz. Dena den, antzerkiak Donostiako edo,

gehienez, Gipuzkoako ikuslego bati zuzenduak direnez, suposa liteke bertako fonetismoak direla gehienak, herri-hizkera bizia islatzea izan ohi baitute helburu mota horretako antzerkiek. Bideanabar, beraz, fonetismook ahozkoasuna testu idatzietan antzemateko baliabiderik hoberenak ditugu.

Astarloaren ideietan oinarrituta, garai hartako idazle askok *f*-ren aurkako jarrera hartu zuten, gazteleratik sartutako soinutzat baitzuten. Mogel izan zen horren babesle sutsuenetako bat eta *f p*-rekin ordezkatzeko zuen beti (Urgell, 2018: 617). Joera hori Donostiako eskolako idazleetan izan omen zuen jarraipen nabarmenena, baina ez da orokorra, eta aztergai ditugun testuetan topatu ditugun adibide eskasetan, gehienetan *f* mantentzen da. Soroaren lanean daude denak, elkarrizketetan: *afaitazallia* (Sor. 4), *alferric* (Sor. 5), *festaric* (Sor.5), *naparrecua* (Sor. 3), *progradu* (Sor. 5), *fiñ* (Sor. 4)...

Txistukariei dagokienez, ez da lege orokorrik antzematen ez Soroaren ez Barriolaren testuetan, hots, askotan *z* beharrean *s* darabilte eta alderantziz. Lehenengo kasua, askoz maiztasun handiagoarekin ematen da Soroarenean Barriolarenean baino: akotazioetan soilik *modus* (Sor. 5) eta *esagutzeco* (Sor. 8) topatu ditugu, baina elkarrizketetan askoz gehiago dira, *posturic* ('pozturik', Sor. 3), *gaste* (Sor. 3), *gustiya* (Sor. 3), *besait* (Sor. 5)... Barriolak ordea, adibide gutxi ditu: portadan *moldestegian* (Bar. 1), akotazioetan *eskutatukodu* (Bar. 5), eta elkarrizketetan *gaste* (Bar. 4) eta *keskarik* (Bar. 6). Kontrako kasua gutxiagotan ematen da: Soroak *adizkide* (Sor. 4), *prozeziyua* (Sor. 4), *zaltzen* (Sor. 5), *zartu* ('sartu' Sor. 6)... ditu elkarrizketetan, eta akotazioetan ezta bat ere. Barriolak, berriz, akotazioetan hainbat ditu: *zagar* (Bar. 3), *ezkutitza* (Bar. 5), *erakutziyaz* (Bar. 6) eta *azarre* (Bar. 7); elkarrizketetan, ordea, soilik *azarre* (Bar. 7), *azarria* (Bar. 7) eta *adizkide* (Bar. 7).

### 3.3. Izen morfologia

Atal honetan ez dugu ezaugarri nabarmen askorik topatu aztergai ditugun testuetan, gehienak ez baitu interesik. Hala ere, badago zer komentatu: *-a* itsasiak gorabeherak izan zituen garai hartako Hegoaldeko testuetan, hitz batzuek galdu baitzuten eta, aitzitik, *-a* inoiz izan ez duten beste batzuk balute bezala jokatzeko baitira, ziurrenik hiztegitik hartuak edo ikasiak izateagatik (Urgell, 2018: 619); Soroaren eta Barriolaren lanetan aurkitzen dugu *-a* itsasia behar luketen arren ez daramaten adibide gutxi batzuk, denak elkarrizketetan: *zitalkeri* (Sor. 4), *animalkeri* (Sor. 8) eta *keskik* ('kezkarik', Bar. 7).

Pertsona-izenordain sistema arrunta darabilte oro har biek, *ni*, *hi* (*y*), *zu*, *zube*... izanik gailentzen diren formak. Izenordain indartuei dagokienez, Urgellek (2018: 619) dioenez, *neu* eta *neroni* erako formen arteko muga Gipuzkoan kokatzen da LEMan, mendebaldean eta hego-ekialdean *neu* izanik eta ipar-ekialdean *neroni*. Dena den, *neu*-ren eremuko idazleek bietakoak txandakatzen dituzte, eta literatur gipuzkerak oro har *neroni* erako formak hobetsiko ditu. Gure testuetan, indartuen adibide bakar bat baino ez dugu topatu, zehazki Barriolaren testuan, elkarrizketetan, eta *neroni* erakoa da: *neonek* (Bar. 8). Bestalde, *ner* da (*neri* datiboan) biek darabilten lehen pertsonako izenordain posesiboa, XIX. menderako erdialdeko dialektoetan jadanik orokortua zegoena, *ene* zaharraren kaltetan.

### 3.4. Aditz morfologia

Literatur gipuzkeran, Larramendik erabilitako Betteriko hizkeraren adizkiak nagusitzen hasten dira (Urgell, 2018: 621), eta horixe islatzen da Soroa eta Barriolaren testuetan. Adibidez, bi obretan ikus daiteke nola gipuzkera zaharreko *deu* eta *due* desagertuak diren *du* eta *dute*-ren mesedetan, hurrenez hurren. Halaber, hasieran zegoen *-an*, *-ala* vs. *-en*, *-ela* bikoiztasuna (hark *duan*, *zuan*/ haiek *duen*, *zuen* vs. *duen*, *zuen*/*duten*, *zuten*) desagertu eta *duen*/*duten* eredu nagusituko da, hots, Larramendik eta bere jarraitzaileek hobetsitakoa. Gure testuetan ere hori ikusten da, oro har bigarren formakoak aurkitzen baitira. Soroak elkarrizketetan ditu denak: *...ori egin biar zuben*

(Sor. 6) ....*kentzen duben bezala* (Sor. 5), ...*neretzat izan biardubela* (Sor. 5), *dantzic nai ez dubela* (Sor. 6)... Barriolak, berriz, elkarrizketetan ...*abestutzen duben mutil...* (Bar. 4) ...*ikusiko ote duben* (Bar. 5), eta ...*ekarri biar omen zuben...* (Bar. 6) ditu, baina akotazioetan ere baditu: ...*eskutatu duben lekuan...* (Bar. 6) ...*errenkada bat gañian dubela...* (Bar. 3) eta *eskutitz bat eskuan dubela* (Bar. 6). Dena den, forma zehatz horietatik kanpo, ez da lege orokorrik antzematen (Urgell, 2018: 622): *o* eta *u* bukaeradun adizkietan nahiz *a* eta *e* bukaeradunetan ez dago joera garbirik, jarraian *e* eta *a* duten adibideak baititugu. Dena den, bai Soroak eta baita Barriolak ere *a* darabilte *e* baino sarriago. Biek elkarrizketetan erabiltzen dituzte denak: *dala* (Sor. 3), *dela* (Sor. 4), *dan* (Sor. 6) , *diran* (Sor. 4), *zeguan* (Sor. 5), *dan* (Bar. 3), *zan* (Bar. 5), *dala* (Bar. 7), *zala* (Bar. 6)...

Bestalde, Euskara Modernoko idazleen adizki trinkoen erabilerari buruz honako hau dio Urgellek (2018):

Garai historikoan aditz trinkoak atzeraka badabiltza ere, iraun zutenak erraz aurkitzen dira testuetan (...) Denak edo gehienak bizirik ziren, dudarik ez, baina zeinen aberaski erabiltzen diren gogoan harturik, arrazoizkoa da pentsatzea hein batean bederen erabilera gramatika ikasi izanaren ondorio dela, eta estiloaren aberasgarri... (Urgell, 2018: 623)

Hortaz, idazle jantziek berariaz erabiltzen zituzten adizki trinko anitz euren idazkera aberasteko. Gure testuei dagokienez, trinkorik ez da ia aurkitzen: akotazioetan ez dago bat ere, eta elkarrizketetan bakanen bat topatu dugu, baina ez dira oso korapilatsuak (adibidez, Barriolan *datorkidanian*, 4. orrialdean). Hori azaltzeko hipotesi bat izan daiteke, goi-mailako literaturari dagozkion testuak ez direnez, autoreak ez direla saiatzen adizki trinko aberatsez apainduriko idazkera bat egiten, kaleko hizkeratik gertu dagoen bat baizik.

### 3.5. Sintaxia

Euskara Modernotik aurrera, Urgellek dioenez (2018: 626), Hegoaldeko obretan lehen baino perpaus luze eta konplexuagoak ugaltzen hasten dira —baliabide diskurtsiboekin batera—, handinahiagoak izanik. Beharbada itzuli ohi ziren inguruko erdaren (latina, frantsesa, gaztelera) joskeren parean jarri nahian hasi ziren euskal idazle zainduak sintaxi landuagoa egiten. Hala ere, larramenditarrek bazekiten euskal sintaxia latin edo erromantzeenaz bestelakoa dela, eta hura mantentzeko beharrari heldu zioten. Larramendik (1745: xl-xli *apud* Urgell, 2018: 626) gaitzetsi egin zituen sermoiak gazteleraz prestatu eta ondoren euskarara itzultzen zituzten sermoigileak, hizkuntzaren joskeraren funtsa zapuzten zutela egotzita, eta horren ordez «euskara argi, ulergarri, garbi eta ongi ordenatutako» bat aldarrikatu zuen.

Euskaraz aditza perpausaren amaieran jartzea hobe delako ideia defendatu zuten LEMko hainbat autorek, besteak beste, Kardaberatzek eta Añibarrok. Lehenbizikoaren hitzetan, «Euskarak berez ez du preposiziorik, eta guztiak postposizioak dira, eta egokiena da are aditzak ere atzean jartzea, honela normalean dotoreago ematen baitute» (*Réplica* 10-11 *apud* Urgell 2018: 626; Urgellen itzulpena). Dena dela, arau hori ez zen BEMan bezain zurrunki aplikatu eta antzematen da aztergai ditugun obretan, hurrenkerari dagokionez nahiko libreak baitira. Soroak elkarrizketetan *Justiciya egin biar diat* (Sor. 6) eta *erosi dizut carga guztiya* (Sor. 5) motakoak ditu eta akotazioetan ere bai: *ishirtzenda inguruban dakarren aulki cashcar batian* (Sor. 4), *Soca ascutzen du* (Sor. 5). Barriolak ere bi motatakoak ditu elkarrizketetan: *Jantzitzen ari da.* (Bar. 4), *...jarriko naiz kale ertz batian* (Bar. 4)... Baina aditza hasieran jartzen du beti akotazioetan: *Egongo da atzeko atian...* (Bar. 3), *Agertuko da sukaldeko atetik* (Bar. 4)... Nabarmentzekoa da biek joera handia dutela eszena-argigarrietan aditza aurrean jartzeko, Barriolak bereziki. Hemen kontrastea dago elkarrizketekin, azken hauetan ez baita joera zehatzik antzematen.

Ezezko perifrasiari dagokionez, *etorri ez da* erako ordena zaharra ia ez da ageri gure testuetan, nahiz eta idazle larramenditarrek maiz erabiltzen duten (Urgell, 2018: 627); ordena berriko *ez da etorri* modukoak dira topatu ditugun gehienak. Soroak ezezko perifrasi guztiak elkarrizketetan ditu: *Ez da izan...* (Sor. 3), *Ez du tratu charra egin...* (Sor. 5) *...ez da lapurretic egiten* (Sor. 8)... Eta ordena zaharreko adibide bakar bat du: *Dantzic nai ez dubela...* (Sor. 6). Barriolaren obran ere, elkarrizketetan agertzen dira denak, ordena berrikoak gehienak: *...ez aldia ezkonduko!* (Bar. 5), *...ez detala ikusi ere egin nai* (Bar. 7)... Eta ordena zaharreko bat: *Esan ez nazu...* (Bar. 8). Dena den, Larramendik bi ordenak onartu zituen bere gramatikan. *Ezin*-en kasuan, ordea, *ezin eman det* ordena hobetsi zuen, hain zuzen ere Soroak eta Barriolak dakartena. Hiru adibide ditugu osotara, guztiak elkarrizketetan: *Eziñ izanliteke ori zuben astakerien bat beizik* (Sor. 4), *Ezin desegingo da gauza* (Sor. 4) eta *...ezinliteke jua gaur* (Bar. 7)...

Beroriketari buruz, honakoa dio Caminok (2018: 721): «Galduz joan da gure aldian gaindi beroriketa Hego Euskal Herrian (...) Honelakoak entzun zitezkeen XX. mendearen bigarren erdian, esate batera Donostia berean, baina gure aldiaren bukaerako belaunaldiko jendeek ez dute mintzaeran beroriketaren jarraipenik egin». Soroaren nahiz Barriolaren lanetan adibide ugari aurki ditzakegu, elkarrizketetan soilik, pertsonaia batek beste pertsonaia inportanteago bati —alkateari edo afeitatzaileari Soroaren lanean eta herriko organistari Barriolarenean— hitz egiten dionean: *Ematen aldigu beorren lizentziya?* (Sor. 4), *...egin biar du apaindu...* (Sor. 4), *Ar beza* (Sor.), *Karterua beorrenzat karta batekin. Artu beza* (Bar. 6), *Utzi bitza...* (Bar. 6), *Bekar orduan* (Bar. 6)...

Bestalde, aipatzekoa da Soroak nahiz Barriolak hitanoa asko erabiltzen dutela elkarrizketetan, hizkera informal bat islatu nahiz. Toka soilik aurkitzen dugu, antzezle guztiak gizonezkoak direlako: *deitu zac* (Sor.), *egin bear diat* (Sor.) *eramantzac oillarrau* (Sor.), *Y Nikasio!* (Bar.), *Arritzen nak* (Bar.), *Ekarri zak* (Bar.)... Horrek akotazioen hizkuntza-erregistro formalagoarekin kontrastatzen du.

Bukatzeko, sintaxiari baino pragmatikari gehiago dagokion arren, nabarmendu behar da elkarrizketetan onomatopeia eta espresio ugari erabiltzen dituztela. Horren arrazoia ahozko hizkuntzara hurbiltzea da, azken finean hizkera ahalik eta herrikoi eta naturalena islatzea baitzen helburua: *pill, pill* (Sor. 5), *zirt-zart* (Sor. 5), *pim pam* (Sor. 5), *¡zapla!* (Bar. 4), *¡Bapo!* (Bar. 4), *¡¡Arranua!!* (Bar. 6)... Akotazioen erregistroa, esan bezala, formalagoa denez, ez da halakorik agertzen.

### 3.6. Lexikoa

Lexikoaren esparruan nabarmenki sumatzen da Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-k Donostiako eskolako autoreengan (eta, oro har, LEMko Euskal Herri osoko idazle gehienengan) izan zuen eragina. Jakina denez, Larramendik hitz berri edo neologismo ugari eratu zituen bereziki erdaretako hitz fakultatiboen ordainak ematerakoan, eta, beraz, oso ohikoa da LEMko (eta, batzuetan, BEMaren hasierako) autore zainduen idazlanetan hitz larramenditarrak aurkitzea lexiko jasoa erabili behar dutenean.

Guztiarekin ere, ez da *Hiztegi Hirukoitza* garaiko idazleek duten baliabide bakarra eta, hortaz, ez ditugu soilik bertatik ateratako hitzak topatuko. Urgellek (2018) pasarte honetan ongi azaltzen duenez:

...praktikari dagokionez, haren (Larramendiren) *Hiztegi Hirukoitza*-k ez du LEMko lexikoa osoki definitzen, alegia, bertako hitzak erabili behar ziren ala ezeko dikotomia zaharrak. Egia da eskura izan zuten idazleek bertara jo zutela erdal hitzen ordainak bilatzearen, euskal hitzen idatzizko forma zuzena zein zen jakitearren, sinonimoak ikastearren, etab., edozein hiztegi erabili ohi den bezalaxe. Dena dela, hori bezain garbia da LEMko lexikoak beste zutabe bat ere izan zuela: idazleen euren lanak eta asmoak.

Ez da kasualitatea idazle asko hiztegitik ere izatea. Esan liteke *HH*-ak ase beharrez biztu egin zuela euskal lexikoa ezagutu, garatu eta ezagutzera eman nahia. Ondorioz, testuetan jatorri askotariko hitzak aurkituko ditugu: norberaren hizkerakoak, bestetakoak, *HH*-koak, liburuetan ikasitakoak eta norberak asmatuak. Hitz berrien neurria, berriz, idatziaren gaiak, hizkuntz erregistroak eta balizko irakurleak baldintzatu zuen. (Urgell, 2018: 628-629)

Aztergai ditugun bi lanetan *HH*-tik ateratako hainbat hitz topatu ditugu, ia denak eszena-argigarrietan eta portadetan. Ziur aski beste hitz asko kontsultatzeko baliatu zuten hiztegia Soroak eta Barriolak, baina hemen esklusiboki lehenbiziko aldiz Larremendiren lanean lekukotutako formak aipatuko ditugu, horiek direlako ziurtasun osoz Hirukoitzetik ateratakoak. Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* erabili dugu jakiteko hitz larramenditarrak direla. Ondokoak akotazio eta portadetakoak dira denak: *egintza* ('ekitaldia', Bar. 1), *oldizkira* ('inprenta', Sor. 1), *agerle* (Bar. 2) *iruditegi* ('eszenatokia', Sor. 3 eta Bar. 3), *jostirudia* ('antzerki lana', *jostiduri* eta *dostirudi* ere lekukotua, Sor. 2 eta Bar. 1), *eskutitz* edo *ezkutitz* (Bar. 6 eta 5), *aurrandetu* ('jarraitu', *aurrendatu* eta *aurrandatu* ere lekukotua, Sor. 5)... Bestalde, Barriolaren testuan Sabino Aranaren neologismoren bat ere topatu dugu, ulergarria jakinda 1908ko lana dela (Arana 1903an hil zen): akotazioetan *ingi* ('papera', Bar. 3) eta elkarrizketetan *abestu* (Bar. 4). Caminok (2018: 697) dioenez, «Gipuzkoan Larramendiren eraginak luzaz iraun zuen, 1911ko *Baserritarra* aldizkarian esaterako, nahiz noizbehinka Aranaren hitz berriak ere sartzen zituzten».

Elkarrizketetan ere Larramendiren hiztegian lehenbizikoz lekukotutako hitz gutxi batzuk aurkitu ditugu: *azoliyo* ('azolioa', Sor. 5), *eskutitz* (Bar. 9), *bilguma* ('udaletxea', Sor. 9)... Baina, dena den, akotazioetan baino askoz ere eskasagoak dira, eta maileguen erabilera askoz ere malguagoa antzematen da pasarte horietan: *aguardientac* (Sor. 3), *maquiña* edo *makiña* (Sor. 3 eta Bar. 3), *secretariyua* (Sor. 3), *sacristaba* (Sor. 4), *cuarto*



(Sor. 9), *gloriya* (Bar. 3), *organista* (Bar. 3), *karta* (Bar. 6)... Hala ere, ikus daiteke maileguetako batzuk eliz lexikoari dagozkiola: LEMko idazleak oro har erdarakadetatik ihes egiten saiatzen ziren arren, euskarak aspaldi hartutako mailegu zaharrak onartu ohi zituzten, eta eliz lexikoa horiez josita dago. Larramendik berak defendatu zuen hitz horien erabilera:

Euskerari eratxi zaizka gaztelaniatik, latiñetik edo beste hizkundeetatik hitz asko; baña adituaz ta oituaz euskerakoak bezain ongi aditzen diranak, eta oiek utzi bear eztitugu. Ta bearbada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea, euskerakoak baño; batez ere eliz gauzetan ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan. (1747: 279 *apud* Urgell 2018: 635)

Lehen Euskara Modernoaren amaieran orobat, Urgellek (2018: 635) azaltzen duenez, idazle zainduak teknika ezberdinak erabiltzen dituzte euren idazkiak lexiko ñabarrak hornitzeko, euskararen aberastasuna erakutsi nahiz, baita agian irakurleei testua ulertzen laguntzeko edota haien hiztegia aberasteko ere. Adibidez, LEMko eratorrien ugaritasuna ohiz kanpokoa da aurreko garaietan; *-keria*, *-tasun*, *-tzaile*, *-kiro* bezalakoak emankorki erabiltzen dira (Urgell 2018: 635). Halaber, ohikoa da sinonimoak edo kidekoak pilatzea, bikote, hirukote zein segida luzeagoetan; izan ere, sinonimo ugaritasuna hizkuntzaren bertute nagusitzat hartua zen LEMaren garaian (Urgell 2018: 635). Testuinguru honetan hedatu zen bi sinonimo *edo-z* lotzeko ohitura, maizenik mailegua eta hitz berria, hala nola *izkunde edo lengoaiea*, *gogarte edo meditaziño* (Urgell 2018: 635)... Barriolaren lanean baino ez ditugu aurkitu horren adibideak, baina maiztasun handiz erabiltzen du. Akotazio eta portadetan *egintzalliak edo agerliak* (Bar. 2), *kucha edo armario* (Bar. 3), *armoniun edo piano* (Bar. 3), *ingi edo kantatzeko paperak* (Bar. 3), *eskutitz edo karta* (Bar. 5)...

Larramendik lexiko jasorako sortu zituen hitz gehienen transmisioa XX. mendean zehar eten zen, besteak beste, Aranek eta Azkuek beren hitz berri propioak sortu nahiago

izan zutelako eta gutxi batzuk baina ez zaizkigu heldu egungo euskara batura (Urgell, 2018: 637): *aditz, antzeztu, berezitu, biztanle, eskutitz, garrantzi* eta baten bat gehiago. Ikusi dugunez, agian Donostiako eskolak zerikusiren bat izan zuen batzuen iraupenean (*antzeztu, eskutitz...*).

Bukatzeko, aipatzekoa da halaber ez direla falta testuetan —batez ere elkarrizketetan — gipuzkerazko hitzak eta, haietako batzuk, zehazki Beterriko hizkerakoak. *OEH* erabili dugu honako hitzak nongoak diren jakiteko: Barriolak elkarrizketetan ditu *aguro* ('agudo', Bar. 3, Beterri ingurukoa), *gobara* (bokata, Bar. 5, Tolosa-Beterri ingurukoa), *solomосу* (sor-motzo, Bar. 4, Beterrikoa)... Eta Soroak, berriz, akotazioetan *ishiri* (eseri, Sor. 4, Beterrikoa) du eta elkarrizketetan *arbasta* (Sor. 4, Beterrikoa), *ancheta* (Sor. 4, gipuzkerakoa)... Lokalismo ia guztiak, beraz, elkarrizketetan daude, espero zitekeenez.

#### **4. Arrueren lanarekin aldeak**

Gregorio Arrue hernaniarraren idazlanak, aipatu bezala, literatur gipuzkeraren XIX. mendearen bigarren erdialdeko ordezkari nagusienetakoak ditugu. Horregatik egokitzat hartu dugu berak idatzitako *Santa Genovevaren Bizitza* (1868) orduan ospetsuaren hizkuntza Soroa eta Barriolaren obren akotazioekin erkatzea, ikusteko horien artean dauden antzekotasun eta desberdintasunak.

Soilik Arrueren lanaren eta beste bien artean existitzen diren ezaugarri komun eta diferentzia nagusiak aipatzera mugatuko gara atal honetan, hots, ez dugu *Santa Genovevaren Bizitza* obraren hizkera sakonki aztertuko, hori ez baita helburua. Halaber, Arrueren lana bete-betean Osterreicher-ek (2004) deskribatutako distantzia komunikatiboaren alorrean kokatzen denez, balioko digu ikusteko zein desberdintasun dauden ahozkotasanari dagokionez mutur bateko eta besteko (antzerkien elkarrizketak, ahozko hizkera edo hurbiltasun komunikatibotik oso gertukoak diren) testuen artean. Jarraituko dugun ordena aurreko ataleko azterketaren bera izango da.

Fonetikari dagokionez, alde handia somatzen da Arrueren eta Donostiako eskolako bien artean, lehenengoak ez baitu inolako fonetismorik. Honek *Alcate Berriya* eta *Meza Berriya* lanetako akotazioen hizkera literatur gipuzkeratik urruntzen du, fonetismorik eza baita literatur euskalki honen ezaugarriarik nabarmenenetakoa. Gainera, idazle zainduak saihestu ohi zituzten fonetismoak, idazkera ulergarri, orokor eta, azken finean, batuago bat erabili nahian.

Izenordain indartuei buruz, gorago aipatu den bezala *neu* eta *neroni* erako formen arteko muga Gipuzkoan kokatzen da LEMan, mendebaldean eta hego-ekialdean *neu* izanik eta ipar-ekialdean *neroni*, baina literatur gipuzkerak oro har *neroni* formakoak hobesten ditu. Arruek ere, Barriolak bezala, era horretakoak darabiltza, ez da *neu* edo antzekorik agertzen bere lanean: *...hilltzea neroni ere...* (Arr. 38), *...neronec eguingo det* (Arr. 23), *...neronec icusi det* (Arr. 28)...

Urgellen (2018: 623) hitzetan, literatur gipuzkeran *egin* laguntzailea aski hedatua dago [-indikatio] moduetan, Beterriko idazleataraino, hain zuzen. Arrue dugu, alegia, [aditzoina/partizipioa + *egin*] perifrasi gehien erabiltzen duen idazleetako bat, eta ez soilik indikatiboan, baizik eta modu guztietan: *aguindu eraci deguiogun* (diezaiogun, Arr. 38), *ez eguiezu ecer egiñ* (iezaiezu, Arr. 31), *lagun leguiquet* (nezake, Arr. 19). Soroa eta Barriolaren testuetan, ordea, ez dugu *egin* laguntzailearen perifrasiarik aurkitu, ez eta *egin* erroko adizki trinkorik ere.

Soroak eta Barriolak ez bezala, gehienbat ezezko perifrasiaren forma zaharra darabil Arruek, hots, *etorri ez da* erakoa: *...eman ez diguzu* (Arr. 8), *...gordetzen ez nau* (Arr. 11), *...galdu ez da* (Arr. 19)...

Urgellek (2018: 627) azaltzen duenez, *Xkin Y* (edo *Xgaz Y*) koordinazio arkaikoa ia galduta dagoen arren, Hegoaldeko zenbait idazletan oraindik aurkitzen da, eta Arrue da

gehien eta libreen erabiltzen duenetako bat, ergatibo, absolutibo eta datiboak ere onartzen baititu: *Golorequin Condeac jaquingo dute* (“Golok eta kondeak”, Arr. 36), *zurequin zure semea aspaldi hillac ciñatelacoan* (“zu eta zure semea”, Arr. 118), *berakin beren familiqi on egiezu* (“berei eta beren familiei”, Arr. 29)... Aitzitik, arkaismo hau erabat desagertuta aurkitzen dugu Donostiako eskolako idazleengan.

Alderdi lexikoan antzekotasunak ditu bi antzerkien akotazioekin. Arrueren lana ere hitz eta atzizki larramenditarretan ugaria da, garaiko literatur gipuzkerako idazle batengandik espero genezakeena, hain zuzen: *moldiztegui* (Arr. 1), *adoragarri* (Arr. 3), *onguinai* (Arr. 5), *maitagarri* (Arr. 39), *gaitzegoqui* (Arr. 91) *gozacaitzquiuroago* (Arr. 34), *berezquiuro* (Arr. 114)... Baina, dena den, garaiko edozein idazle bezalaxe, nahiko malgua da maileguen erabilerarekin: *sonatua* (Arr. 5), *prenda* (Arr. 5), *sillachoan* (Arr. 6), *modestiarequin* (Arr. 6)...

Arrue ere, Barriola bezala, lexiko aberastasuna erakusten saiatzen da hitz askoren sinonimoak ematen *edo*-ren bidez (garaiko joera zen, gorago esan bezala). Batzuetan hitz berria eta mailegua lotzeko erabiltzen du: *pintura edo estampa* (Arr. 4), *eguin-bide edo azaña* (Arr. 5), *jauregui edo gazteluco* (Arr. 11), *babesean edo amparopean* (Arr. 13), *eraso edo batalla* (Arr. 13)...

## 5. Ondorioak

Testuen azterketaren bitartez argi geratu zaigu gure antzerki lanetan aurkitzen diren bi hizkerak bereizten dituen marra uste baino lausoagoa dela. Horrek ez du esan nahi ezberdintasunik ez dagoenik: bi hizkerak bereizteko ezaugarriak topatu ditugu, baina, hala ere, ez da beharbada inguruko erdaretako antzerkietan bezain argi ikusten akotazio edo eszena-argigarrien eta elkarrizketen arteko hizkuntza bereizketa hori. Hori azaltzeko faktore posibleetako batzuk ondokoak izan daitezke: euskarak Donostiako eskolaren aurretik tradizio antzerkigile ia erabat antzua zuela (Barrutia bezalako salbuespen

bakanak kenduta) eta, horren ondorioz, beharbada, tradizio luzea zuten erdarek zituzten ereduak nahiz baliabide diskurtsiboak hein handi batean falta zitzaizkiela antzerkigile euskaldunei; aztertu ditugun antzerkiak ikuslego zabal bati zuzendutako umorezko obrak direla, eta baliteke horrek permisibitate handiagoa ematea idazleari hizkera informalgo baten ezaugarriak erabiltzeko, akotazioen eta elkarrizketen arteko aldea murriztuz.

Gure obrek Lehen Euskara Modernoaren (1745-1877) eta Bigarren Euskara Modernoaren (1876-1968) artean kokatzen den euskara islatzen dute eta, hortaz, bi garaietako ezaugarriak dituzte. Hala ere, bi euskara modernoaren arteko muga ez da erabat zurruna, eta argi geratzen da kasu honetan, bi lanek, 1885 eta 1908koak izanik, BEMko baino LEMko askoz ere ezaugarri gehiago dituztela, batez ere Soroaren obrak. Larramendiren eragin handia da hori baieztatzeko frogarik hoberena; izan ere, Urgellek (2018) dioenez: “... idazlan bat LEMkoa dela jakiteko biderik errazena bertan hitz larramenditarrak aurkitzea da (...) Haietako batzuk aski hedatu ziren LEMan, baina gutxik iraun zuten BEMan jarri zitzairen betoa.” Grafiak ere LEMaren barnean kokatzen ditu bi lanak, besteak beste, <sh> eta <y> dutelako biek, gorago aipatu bezala, XIX. mendearen amaierako Bonaparteren ekarpena. Bestalde, aurkitu ditugun BEMaren ezaugarri argi bakarrak Barriolaren testuko Aranaren hitzak dira.

Azterketak argi erakutsi digu norainokoa izan zen Larramendiren itzala orobat Hegoaldeko idazleen testuetan. Batez ere lexikoan antzeman dugu bere eragina, ziur aski begi-bistakoena delako, baita gramatikaren eragina gehienbat ikertu gabe dagoelako ere. Grafiari, fonetikari, morfologiari eta sintaxiari dagokienez, antzerki lanen akotazio eta elkarrizketen artean desberdintasun handirik ikusi ez dugun bitartean, lexikoa aztertzerakoan nabarmena izan da sumatu dugun aldea. Izan ere, eszena-argigarrietan Larramendik sortutako hitzak ohikoak dira (gehienbat antzerkiaren munduarekin lotutako hitz teknikoak), eta maileguen erabilera berriz, mugatua; elkarrizketak berriz, maileguz josita daude eta ez dugu ia neologismorik edo *Hiztegi Hirukoitz*-ean lehendabizikoz lekukotutako hitzik topatu, salbuespen bakanen bat kenduta. Lehenago azaldu bezala,

Aro Modernoko euskal idazle zainduen artean —eta Europako hizkuntza askotako idazleen artean ere bai— hizkuntzaren aberastasuna erakusteko saiakeran garbizaletasuna hedatu zen, hizkera jaso erabiltzean maileguak ahal zen neurrian saihestuz.

Elkarrizketen kasuan ez da zalantzarik hurbiltasun komunikatiboaren esparruan sailkatzerako orduan, hainbat arrazoiengatik: hizkuntza informala islatzen dute, herrikoa, besteak beste hitanoa eta onomatopeia ugari erabiliz; maileguz josita daude, kalean egiten zen hizkuntza bezala, hots, ihes egiten dute garaiko literatur hizkuntzaren garbizaletasunetik; fonetismo ugari dituzte, literatur gipuzkeran saihestuak ziren bitartean; hortaz, oro har, nabaritzen da ahoskatzeko sortuak direla, alegia, ahozkitasun handiko testuak direla, idazkera literario zaindutik aldenduak. Alta, akotazioen kasuan ez dago horren argi, literatur gipuzkerako ezaugarri zenbait dituzten arren, elkarrizketetako hizkuntza herrikoiarekin ere partekatzen baitituzte: lexikoan kutsu larramenditar handia dute, honen *Hiztegi Hirukoitz*-eko hitz ugari agertzen baitira; baina bestalde, elkarrizketen fonetismo berak dituzte, literatur gipuzkerak fonetismook saihesten dituen bitartean. Distantzia eta hurbiltasun komunikatiboaren arteko erdibidean leudeke, beraz, eszena-argigarriak.

Beraz, bukatzeko, Urgellek (2018: 635) Donostiako eskolako antzerkien hizkerari buruz egin zuen baieztapena ñabartu edo zehaztu beharra dagoela esan daiteke. Egia da oro har aldeak ikusten direla eszena-argigarrien eta elkarrizketen artean, baina gehienbat lexikoak dira, gainontzekoan ezaugarri berak edo oso antzekoak baitituzte. Eta, are gehiago, lexikoan ere ez dira akotazioak hitz larramenditarrak (edo Aranaren neologismoak Barriolaren kasuan) dituzten bakarrak, elkarrizketetan ere baten bat topatu baitugu.

## 6. Bibliografia

Altzibar, Xabier, 1992, “Larramendi eta literatur-gipuzkera”, in J.A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena, 1690-1990*, Andoain: Euskaltzaindia, 325-360.

Aldekoa, Iñaki, 2008, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

Arrue, Gregorio, 1868, *Santa Genovevaren vicitza*. Tolosa: Pedro Gurruchagaren moldiztegia.

Barriola, Avelino, 1908, *Meza Berriya*. Klasikoen gordailua. <<https://klasikoak.armiarma.eus>>

Camino, Iñaki, 2018, “Bigarren Euskara Modernoa (1876-1968)”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 659-735.

Cano Aguilar, Rafael, 1998, “Presencia de lo oral en lo escrito: la transcripción de las declaraciones en documentos indianos del siglo XVI”, in W. Osterreicher, E. Stoll & A. Wesch (arg.), *Competencia escrita, tradiciones discursivas y variedades lingüísticas. Aspectos del español europeo y americano en los siglos XVI y XVII*. Tübingen: Gunter Narr Verlag, 219-242.

Osterreicher, Wulf, 2004, “Textos entre inmediatez y distancia comunicativas. El problema de lo hablado escrito en el Siglo de Oro”, in R. Cano Aguilar (arg.), *Historia de la lengua española*. Barcelona: Ariel, 729-769.

—, 2011, “Conquistas metodológicas en la lingüística diacrónica actual. La historicidad del lenguaje: lenguas, variedades y tradiciones discursivas en el marco de una semiótica social”, in M. Castillo Lluch & L. Pons (arg.), *Así se van las lenguas variando. Nuevas tendencias en la investigación del cambio lingüístico en español*. Bern: Peter Lang, 305-334.

Lamikiz, Xabier, Manuel Padilla & Xarles Videgain, 2016, *Othoi çato etchera. (Lapurdum-en ale bereziak 2)*. Baiona: UMR 5478 du CNRS & Département d'Etudes Basques de.

Mitxelena, Koldo, 2001, *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.

Nuñez, Rafael, 1991, “La comunicación teatral”, in A. Sánchez, J.R. Valles (arg.) *Introducción a la semiótica: actas del curso de Introducción a la semiótica* Universidad de Oviedo: 53-70.

Sarasola, Ibon, 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, in ASJU 203-215

Soroa, Marcelino, 1885, *Alcate Berriya*. Klasikoen gordailua.  
<<https://klasikoak.armiarma.eus>>

Urkizu, Patrizio, 2009, *Teatro Vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*. Madril: UNED.

Urgell, Blanca, 2018, “Lehen Euskara Modernoa (1745-1891)”, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 543-657.

Zuloaga, Eneko (d.g.), “Alzaga Anabitarte, Toribio”, *Añamendi Eusko Entziklopedia*,  
<<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/alzaga-anabitarte-toribio/ar-9338/>>